

TOLOSALDEKO ETA LEITZALDEKO hitza info

Asteazkena, 2011ko azaroaren 2a. VIII. urtea. 2.300. zenbakia. tolosaldea.hitza.info

Abesbatza Lehiaketako lau sari irabazi ditu Orey Chamber Choir koruak

Hirugarren aldia da Ukrainako abesbatzak Tolosan parte hartzen duela eta jasotakoarekin, tartean sari nagusia, oso pozik daude; «izugarria da hau dena», dio zuzendariak

Euskal Herriko ordezkari bakarra, Errenteriako Landarbaso abesbatza, ahots nahasien polifonia saileko hirugarren saria eskuratu du Tolosako txapelketan **o2-3**



Ukrainako abesbatza oso gustura azaldu zen atzo goizean, sari banaketa ekitaldian. Irabazleek bihar bertan beste emanaldi bat eskainiko dute Santa Klara elizan, 19:30etik aurrera. A. IMAZ

Iñigo Jauregi Arraunlaria

«Zierbenan bagenekien lan polita egitea posible zela»

Orion aritu eta gero Zierbenan dago orain tolosarra; Urdaibairen afera dela eta oraindik ez dakite lehen mailan geratuko diren **o6**



LAB eta Bilgune Feministak Berdintasun Plana egitea eskatu diote Sarriopapeli

«Gustura» daude udan hasitako curriculum bilketak emandakoarekin **o7**



FUNERARIA
VASCONGADA
EHORZKETAK

Kondeko aldapa, 5
www.funerariavascongada.com



Gertu...

TOLOSAKO
HILETA ZERBITZUAK
BEILATOKI BULABEA

24 H..

943 670 040

Ukrainako Oreya abesbatzak irabaz zezakeen guztia irabazi du

Abesbatza Kantuaren Europako Sari Nagusia hilaren 5ean, larunbatean, Tolosan jokatu du

Asier Imaz

Ukrainiako Orey Chamber Choir izan da 43. Abesbatza Lehiaketako talde izarra. Guztira lau sari irabazi dituzte ukrainarrek, baina oraindik ezin izango dituzte etxera eraman kopa eta txapela guztiak, Tolosan jarraitzeko asmoa baitute. Sari Nagusia, Ikuslearen Saria eta Ahots Nahastuetako bi sariak jaso dituen abesbatza ikusi nahi duenak, hilaren 3an, bihar aukera paregabea edukiko du Tolosako Santa Klara elizan. 19:30ean hasiko den kontzertuan, Ukrainako taldeko ahots eder eta landuek, musika ortodoxoa zer den erakutsiko dute. Kiniela gehienetan Oreya abesbatza nagusi zenez, atzoko sari banaketa ekitaldian, ikusleek txalo zaparradak eskaini zizkien. Ukrainiarrek euren aldetik, agur abestiak edertasunez kantatu zituzten.



Txinako Guangzhou Children's Palace Choir-ek irabazi du Haur Abesbatzako lehen saria. A. IMAZ

Izar distiratsuenen atzetik, Txinako haurrak, Asturiasko haur eta helduak, Errenteriako Landarbaso abesbatza eta Ingalaterrako hainbat talde azpimarratu behar dira. Guztien artean, aurtengo Tolosako Abesbatza Lehiaketari maila gorena eman diote. Epaiilek eta antolatzaileek ere hori azpimarratu nahi izan dute, puntuen edo kritiken bidez.

Hilaren 5ean, jarraipena

Abesbatzen zaleek aurtengo urtea ez dute erraz ahaztuko. Tolosako lehiaketaren ondoren, aste-bete eskasera, Abesbatza Kantuaren Europako Sari Nagusia jokatuko baita Tolosan bertan. Egun bateko lehia honetan, bost abesbatza ariko dira Leidorren. Europako sari nagusia hilaren 5ean, larunbatean, izango da

17:30etik aurrera. Bertan ondorengo taldeak egongo dira: Italiako Coro Citta Di Roma; Euskal Herriko Kup Taldea; Alemaniako Consono Chamber Choir; Suediako Svenska Kammarkör eta Hungariako Cantemus Children's Choir. Azken hauek txartela izango Tolosako Abesbatza Lehiaketan lortu zuten, Sari Nagusia eskuratu ostean.

43. Abesbatza Lehiaketa

KUTXA SARI NAGUSIA

■ Orey Chamber Choir. Ukraina.

IKUSLEAREN SARIA

■ Orey Chamber Choir. Ukraina.

EUSKAL ABESTI BATEN INTERPRETAZIO ONENA

■ Coro El Leon de Oro. Asturias. Josu Elberdinen *Segalariak* abestiagatik.

HAUR ABESBATZAK

- 1. Guangzhou Children's Palace Choir. Txina.
- 2. Los Peques del Leon de Oro. Asturias.
- 3. Loboc Children's Choir. Filipinak.

AHOTTS TALDEAK MUSIKA ERLIJIOSUAN

- 1. The Gentlemen Singers. Txekia.
- 2. Songmen. Ingalaterra.
- 3. Convivium Singers. Ingalaterra.

AHOTTS TALDEAK MUSIKA PROFANOAN

- 1. The Gentlemen Singers. Txekia.
- 2. Songmen. Ingalaterra.
- 3. Convivium Singers. Ingalaterra.

AHOTTS NAHASIAK POLIFONIAN

- 1. Orey Chamber Choir. Ukraina.
- 2. Coro El Leon de Oro. Asturias.
- 3. Landarbaso Abesbatza. Errenteria, Euskal Herria.

AHOTTS NAHASIAK FOLKLOREAN

- 1. Orey Chamber Choir. Ukraina.
- 2. Coro El Leon de Oro. Asturias.
- 3. Youth Choir Balsis. Letonia.

**** Epaimahaia: Xabier Sarasola mahaiburua; Tolosatik Enrike Azurza; Ingalaterratik Peter Broadbent; Hungariatik Miklos Csemiczky; Bulgariatik Irena Korolova; Italiatik Francesco Luisi eta Esloveniatik Ursa Lah.**

**** Kutxa Sari Nagusia jaso duen taldeak 2012ko Europako Sari Nagusian parte hartzeko aukera izango du.**

Hilaren 3an, adi!



Iritzia
Migel Zeberio
Koru zuzendaria

Emaizten garaian, guztiok alderatu ohi dugu epaia gure kinielatxoarekin.

Talde batzuen lanak auzi gutxitarako aukera sortu du, baina orokorrean eta muturrekoak salbu, abesbatza askoren arteko alde oso txikia izan da jaso dituzten puntuei dagokionean. Hori horrela, St Petersburgoko Irratiko haur abesbatza eta Alemaniako Bremen eta H Schütz ere, menturaz, sarituen zerrendatik at gelditu dira. Atzoko kronikan

idatzitakoaren haritik gauzatu dira sari gehientsuenak. Azken ekitaldiak ere gauza garrantzitsuak eskaini zizkigun; Santa Klaran, musika sakratuan izan genituen ahots taldeek, musika profanoan erakutsi zuten eredu antzekotsua errepikatu zuten kalitateari dagokionean. Elizaren baldintza akustiko egokiek edertu zuten ordea, lana.

AEBetako The Coral Projectek ibilbidea apaltasunetik aurkeztu zuen, ez ordea Errenteria eta Asturiasekoek, lehiaketa distiratsu amaitu zedin lagundu baitzuten. Landarbaso Abesbatzak urteetako lan eskergari esker sari bikai-

na lortu du. Labeldun Tolare Txikian, lehiaketetan aditu egiterainoko eskarmentua erakutsi dute berriro. Jakin bazekiten, zeri aurre egitera zihoazen. Ezagunak zizuten beren arerioak izango zituztenak. Eta prestutasuna erakutsi zuten. Leon de Oroko asturiarrek kementsu ekitea erabaki zuten, ekitaldien lehen akordetik.

Bia hala biak, epe luzeko proiektu pertsonaletatik garatu dira; direnak izateraino iritsiz. XX. mendeko musika eritmitiko eta efektuz beteak menderatzen dituzte. Azpimarratzekoak Asturiasko tenoreen ahots kementsuak. Folkloreari adoretz eta errespetuz ekiten diote, originaltasunari leku emanez. Gabeziak birtute bilakatzeko lanean dihar-

dute, eta horra hor emaitzak. Biba zuek!

Ukrainako Oreyako zuzendari Alexander Vatssek maixu handiarekin solasean aritzeko aukera izan nuen. Besteak beste, horrelako lanaren nondik norakoa jakin nahian. Bizitza osoko lanaren ondorioa da lorpen hau, astero ordu mordo eskaintzen diotela lanari aitortu zidan. Txanponaren beste aldean berriz, beren herriko egoera ekonomikoa eta soziala aipatzen zituen, bertako egoera latza- ren berri emanaz.

Sariekin batera, gure txaloen eskertza jasotzen jarrai dezaten proposatzen dizut, irakurle; bihar bertan izango den aukera ezin pasatzen utzi: Tolosako Santa Klara komentuan izango den ekitaldiari adi!

Iragarki laburrak

LANA

■ **Zaintzailea.** Esperientziadun emakume euskalduna, asteburuetan eta astean zeharreko jai egunetan, pertsona edadetuak zaintzeko eskaintzen da, Tolosan. Interesatuak deitu ondorengo telefono zenbakira, 626 11 92 50ra.

SALGAI

■ **Etxe adosatua.** Tolosan etxe adosatua salgai: eguzkitsua, lau gela, bi bainugela, komuna, zeharreko jangela handia, sukualdea, bi autorentzako gara-jea, txokoa, jardina eta trastele- kua. Interesatuak deitu, 678 26 76 57 telefono zenbakira.

■ **Etxebizitza.** Leitzan etxebizitza salgai. Aukera ezinhobea. Lehendabiziko pisua, oso egoera onean. Bizitzera sartzeko prest. 90m². Sukaldea, bainu- gela, hiru logela handi eta trastele- kua. Igogailua jarri berria eta berogailuarekin. Interes- atuek deitu ondorengo telefono zenbakira: 649 20 83 10.

HARATEGIA SALGAI AZPEITIAN
Lolaia bidan dago eta 10m² ditu
Informazio gehiagorako:
635 746 321

Alexander Vatsek ◊
Oreya abesbatzako zuzendaria

«Europako lehiaketa garrantzitsuena Tolosakoa da»

A. Imaz

Sari banaketa ekitaldiaren ondoren, oraindik laino artean zegoen Oreya abesbatzako zuzendaria, Alexander Vatsek. Ukrainakoa taldearen gidariak, Tolosarekiko esker oneko hitzak besterik ez zituen. Horrez gain, beste abesbatzengandik asko ikasi duela onartu zuen. Txapeletako bat buruan zuela, kazetariekin elkartu zen Leidor aretoan.

Horrenbeste sari jaso dituen abesbatza batentzat, zer da Tolosako Abesbatza Lehiaketan lau sari jasotzea?

Ezin sinetsirik nabil oraindik. Gu Tolosara hiru alditan etorri gara: lehenengoa 1992. urtean izan zen. Mistotetan zortzigarren gelditu ginen, eta nesketan bigarren postuan. Ukrainatik irteten ginen bigarren aldia zela kontuan hartuta, oso pozik gelditu ginen, ezusteko handia izan zen. Horrez gain, jende jator ugari ezagutu genuen Tolosan. Luis Zeberio eta antolakuntzako beste hainbat lagun.

Noiz izan zen bigarren aldia?

1999an. Polifoniar bigarren saria eskuratu genuen, eta folklorea lehenengoa.

Hirugarrenean, berriz, nagusi.

Jainkoaren zenbaki maitatuena hirua da, eta guk hirugarrengoa lau sari irabazi ditugu. Izugarria da hau dena.

Epailen erabakia jakin zenuenean, zer pentsatu zenuen?

Oso pozik gelditu ginen. Folklorean adibidez, Asturiasko Leon de Oro abesbatza ikusten nuen faborito: oso maila altua erakutsi zuten, uste nuen eurek irabaziko zutela. Oreya abesbatzaren 25. urteurrena dela kontuan hartuta, horrelako emaitza lortzea oso garrantzitsua da guretzat.



A. IMAZ

Zeresan nahi du Tolosak zuretzat?

Europar sei lehiaketa garrantzitsu daude, eta horietatik garrantzitsuena niretzat Tolosakoa da. Ohore bat da niretzat gu hemen egotea. Sariak jasotzeaz gain, asko ikasi dugu. Landarbasoko abesbatzak adibidez, ideia oso originalak eta onak erakutsi dizkigu; estetiki asko gustatu zaizkit, oso interesgarria izan da. Denborarekin asko hobetuko dutela iruditzen zait, eta arrakasta lortuko dutela.

Ikuslearen Saria, azken urteetan, kantatzerako unean serio egoten diren taldeek ez dute irabazi; hauek Sari Nagusia eman izan ohi dute. Aurten zuek biak irabaztea lortu duzue.

Kontsebatarioan ikaslea nintzeanean, irakasle oso serioa genuen. Niretzat ez zen hori batere interesgarria. Nire ustez, abesbatza serioa izan behar du, baina baita show-a ematen duena ere: neskak ederrak, gizonak gogorak eta itsura elegantekoak, guztiak. Neska ederrekin ez dut esan nahi politikak, dotoreziaz interpretatzen dakitenak baizik.

Irudia ◊



TXAPELDUNAK GARAI PENA OSPATZEN

43. Abesbatza Lehiaketaren epaia herenegun eman zuten argitara epaileek, 23:00etan Beoti-bar pilotalekuan. Behin urduritasunak ahaztu ostean, ahotsari atsedean eman zioten abesbatzako kideek, hori bai, gorputzak dantzan jarriaz.

Ukrainako Oreya abesbatzako kideek bazuten zer ospatua, eta horrela egin zuten. Euren alboan, Txinako haurrak ere dantzan ibili ziren, lortutako saria ospatuz. Atzo, berriz, denak sari banaketa ekitaldian berriro aritu ziren kantuan. A. IMAZ

Irudia ◊



EUSKAL PRESO ETA IHESLARIAK GOGOAN

Euskal preso eta iheslari politikoen eskubideen aldeko eskualdeko hainbat eragilek, elkarretartzea antolatu zuten atzo goizean, Leidor aretoaren kanpoaldean. Abesbatza Lehiaketaren sari banaketa ekitaldiaren aurretik, esku orriak bana-

tu zituzten bertarartzen zirenen artean. Euskal presoek Euskal Herriratzea eskatzearekin batera, hauek bizi duten egoera salatu nahi izan zuten bertan, gaixo dauden edo zigorra beteak duten presoek askatasuna eskatu. A. IMAZ

**Tolosaldeko eta Leitzaldeko HITZAn jarrita
Gipuzkoako beste 4 Hitzetan DOAN**

hilberriak
urteurrenak
eskertzak

HITZA Gipuzkoako bigarren egunkari irakurriena



Laskorain ikastolako, Berritzeguneko, Tolosako Udaleko eta Orixe institutuko ordezkariak, egindako agerraldian. L. URKIZU

Elkarlanean ariko dira Tolosa eta Cardiff, hizkuntza errealitateak aztertuz

Bi urterako, Comenius Regio hitzarmen bat sinatu du Tolosak, Galeseko hiriburua den Cardiffekin

Hitzek Urkizu

Hizkuntza errealitate desberdinek ezagutzeko eta atzerriko hizkuntzenganako interesa sustatuz eleaniztasuna bultzatzeko bidean, Tolosak eta Galeseko Cardiff hiriak (galeseraz Cymraeg), Comenius Regio deituriko hitzarmena sinatu dute. Bi urteko iraupena izango du, euskaldun eta galestarren errealitate linguistikoen elkartrukeak.

Arduradunek azaldu dutenez, proiektu berritzailea da, eta Europa mailakoa. Comenius Regio hitzarmenek, tokian tokiko aginpideen, eta Europa mailan hezkuntzan lan egiten duten eragileen arteko elkarlanak sustatzea dute helburu nagusia. Modu honetara,

hezkuntza eskaintza hobea izateko bidea jorratzen dute.

Hitzarmen hauek Europako Hezkuntza Programa Autonomoen Erakundeak (EHPAE) bultzatzen ditu, eta hainbat baldintza bete behar dira parte hartzeko.

Lehenik eta behin, hitzarmenaren ondorioz sortutako elkarteak, gutxienez, bi eskualde parte hartzaile izan behar ditu. Eskualde hauek, aginpideen, eskolen eta bestelako erakunderen baten batesa behar dute Comenius Regio parte hartzeko.

Horrela beraz, Cardiff hiriarekin sinatutako hitzarmenean, Tolosako bazkideak Tolosako Udala, Bigarren Hezkuntzako Orixe institutua, Laskorain ikastola eta Berritzegune nagusia dira.

Cardiffetik, berriz, Cardiff Country Council edo Cardiffeko Udalak, Coed Glas Primary School-ek eta Ysgol Gyfun Gymrag Plasmawr Secondary School-ek parte hartuko dute, besteak beste.

Hitzarmeneko bi bazkideen ar-

tean, haria batek eman behar izaten du, eta kasu honetan, galestarrek izango dute ardura hori. Izan ere, duela urte batzuk beste Comenius Regio bateko bazkide izan ziren, eta esperientzia hori dela eta, nolabaiteko gidaritzat hartuko dute.

Elkarlana eta bi errealitate

Hitzarmen honen xederik behina elkarlana eta hizkuntza errealitate desberdinen ezagutzak eskaintzen duen aberastasuna, ikasleei helaraztea dira.

Honen harira, Berritzegune nagusiko ordezkariak azaldu duenez, garrantzitsua da Comenius Regio hitzarmena testuinguru baten barruan kokatzea: «Gizartea aldaketa handiak jasaten ari da, eta guk, malgutasuna landu behar dugu aldaketa hauen aurrean». Atzerriko hizkuntzen beharra gero eta handiagoa dela nabarmendu du, esaterako, leku batetik bestera lan bila joaterakoan.

Gizarte berrira egokitzeko bide horretan, beraz, atzerriko hiz-

kuntzekiko jarrera, baikorra izatea bultzatu nahi dute: gogoa sortzea eta jendea munduan zabaltea. Beste herrialdeen eta kultur garrantziaz jabetu beharra ere landuko dute, modu honetara kulturartekotasuna sustatuz.

Dena den, lau ildo nagusi izango ditu Cardiff eta Tolosaren arteko hitzarmenak. Batetik, irakaskuntza formak garatuko dituzte hizkuntza aniztasunari begira; honetarako, irakasleen arteko mintegiak antolatuko dituzte, proiektu honetarako bereziki sortutako materialarekin, nahiz bestelakoarekin.

Era berean, hizkuntzen arteko alfabetatzea nola garatzen den aztertuko dute; elebidun batengan, adibidez, hizkuntza batetik bestera pasatzeko zein mekanismo dauden ere ondorioztatzen saiatuko dira.

Ikasleen ahotsa bera ere, ildo nagusietako bat izango da, gurasoen parte hartzearekin batera; hizkuntzari buruzko galdetegiak banatuko zaizkie, besteak beste.

Mugikortasuna ere bai

Cardiffek eta Tolosak sinatu duten hitzarmen honen barruan, bi herrien arteko mugikortasuna ere aurreikusita dago.

Bide honetan, pasa den irailaren 20tik 24ra bitarte, Tolosako hiru ordezkari Galeseko hiriburuan izan ziren, bertako errealitate soziolinguistikoa eta hezkuntza sistema ezagutzeko helburuz.

Eduarne Mendia, Tolosako Udaleko Kultura zinegotzia, bertan izan zen, eta «pertsonalki, oso esperientzia aberasgarria» izan zela nabarmendu du: «Egitasmo honetan, nire parte hartzea unean unekoa izan da; izan ere, interes berezia nuen proiektu honetan».

Hitzarmen honetan lantzen denak, norberak bere hizkuntzarekiko duen interes eta motibazioan eragingo duela nabarmendu du Mendiak, eta baita hizkuntzaren beraren atxikimenduan ere.

Cardiffeko errealitateari dagokionez, han udalak hizkuntzan eskumen gehiago dituela azaldu dute arduradunek. Gainera, Galeseko hiriburuan esperientzia handia dute hizkuntza errealitate desberdinekin, etorkinei hizkuntza irakasten, eta abarretan.

Parte hartuko duten ikastetxei dagokionez ere, bada alderik Tolosakoekin. Bai Laskorain ikastolan, bai Orixen, D ereduko hezkuntza eskaintzen dute. Cardiffeko ikastetxeetan, ordea, batzuk galeseraz egiten dute lan, eta beste batzuek ingelesez: «Bi errealitate oso desberdin ikusten dira hango eskoletan, baina oso aberasgarria da».

Tolosako Udaleko Hizkuntza politika eta Hezkuntza saileko zinegotzia den Iñaki Irazabalbeitiak, udalarentzat proiektu honen duen garrantzia azpimarratu du, besteak beste, Galesekin harremanetan jartzen duelako Tolosa.

Irazabalbeitiak, Tolosak eta Cardiffek soziolinguistikoki nahiz ekonomikoki dituzten antzekotasunak nabarmendu ditu. Batetik, diglosi egoeran daude bi herriak; «boteretsuagoa den hizkuntza baten presioa jasan behar duten bi hizkuntz komunitate dira euskalduna eta galestarra», dio Irazabalbeitiak. Halaber, oso herri paretsuak dira, kulturaren, ekonomiaren nahiz nazio identitatearen aldetik.



HITZAK harpidedunentzat **3 sarrera pare** ditu

Ordezko Andereñoa
filma

Azaroak 6 • Igandea • 17:00etan Tolosako Leidorren

HITZAK harpidedun batentzat **sarrera pare** du

LAGUN ARO GBC
Valencia Basket
saskibalo partida

Azaroak 6 • Igandea
18:00etan
Donostiako Ilunben



Zozketan parte hartzeko deitu **943 65 56 95** telefono zenbakira

Eraikin berriarekin herriko lokal eskasiari aurre egingo diote

Erabilera anitzeko gelak egingo dituzte; eraikinak gainean plaza txiki bat eta parkea izango ditu

Eneritz Maiz Baliarrain

Baliarrain herria itxuraldatzen ari da. Iaz plaza guztia berritu zuten, eta orain erabilera anitza izango duen eraikina egiten ari dira, udaletxearen atzeko aldean. Gainean, orain bezala, plaza txiki bat izango du haur parkea eta guzti.

Lokal eskasia zuen udalak, eta gaiari buelta batzuk eman ostean, udaletxearen azpiko aldeko lur zatia kenduz eremu horretan egitea bururatu zitzaion. Etxebizitza berriekin kale bat sortu dute, eta tartean lurzati handi bat zegoen inongo erabilerririk gabe. Alkatearen hitzetan, «herritarrek gustura hartu dute proiektua. Ezer ez zegoen leku bat aprobetxatu dugun», dio.

Martxoan hasi zituzten obrak, eta urtea bukatu baino lehen amaitu nahi dituzte lan hauek. Erein programatik jaso dute diru

laguntza proiektua aurrera ateratzeko. Laguntza eskuratuta, luzapena eskatu zutela gogoratu du Martzelino Dorronsoro alkateak. Orain, behartuta daude urtea amaitu baino lehen obrak bukatzea.

Itxura hartu du eraikinak, baina oraindik barruan lana gertzen dela adierazi du Dorronsorok. Obra guztiak azkenean luze jotzen dutela gogorazi du, baina bukatzen saiatuko direla. Behin obrak bukatuta, haur eskolak irteera zuzena izango du parkera.

Alokairurako bi lokal

Ezer ez zegoen lekuan, herritarren erabilerrarako, 600 metro karratu inguru dituen esparrua atara dute. Bertan, adineko eta gazteentzako dinamizatzeko gela bat, herriko hiruzpalau baserritarrek duten belar elkartearentzako gela, eta hainbat ekitaldietarako sala handi bat ere izango dute. Era berean, udaletxe gainean duten liburutegia bertara pasako dute.

Eraikina egiteko prestatu duten eremua zabala da, eta honez gain, bi gela alokairuan jartzeko izango dira. Beraz, eraikuntza



Udaletxearen atzeko lur zatia kendu dute, erabilera ezberdinetarako izango diren gelak egiteko. E. MAIZ



Goiko zatian plaza txiki bat eta haur parkea jarriko dituzte. E. MAIZ

osoa ez da herritarren erabilerrarako izango, eta bi bulego prestatu dituzte alokairuan jartzeko. Lokal beharreen dagoen edonork, alokairuan hartzeko aukera izango du. Alkateak argitu duenez, honela, udalarentzat diru iturria izango da. Eta eraikinaren errentagarritasuna ahalbideratuko du. Tolosaldea Garatzen bidez, maizterrak aurkitzen ahaleginduko direla adierazi du.

Eraikina bukatzean, hornitzea faltakoa izango da baliarraindarrei. Hornitzeko diru laguntza ere eskatua dute, baina aurten ez diete onartu. Dorronsorok ordea, «datorren urtean berriz saiatuko gara laguntza lortzen», azpimarratu du. alegialdea@hitza.info

Larunbatean izango da Ikaztegiako herri krosa

16:30ean emango zaio hasiera 10 kilometroko lasterketari; 15:00etatik 16:00etara eman ahal izango da izena

E. Maiz Ikaztegieta

Ikaztegiako XXI. Herri Krosa, larunbatean, hilaren 5ean, izango da. Lehen aldiz, larunbatez, eta gainera arratsaldean izango da. Herrigintza Elkarteak, udalaren laguntzarekin antolatzen du. Antolatzaileen esanetan, «besterik gabe, probatzeagatik aldatu dute eguna eta ordua».

Lasterketari hasiera 16:30ean emango diote, eta 10 kilometroko ibilbidea egin beharko dute korrikalariak. Herrian zehar prestatzen da ibilbidea, eta zirkuitu berari hiru itzuli eman behar izaten diote parte hartzaileek. Izen ematea, aldeztu aurretik edo egunean

bertan egiteko aukera dago. Aldez aurretik eman nahi izanez gero, www.herrikrossa.com webgunean bidez egin daiteke, eta 10 euro ordaindu beharko da. Egunean bertan apuntatu zergo, ordea, 13 euro ordaindu beharko da. 15:00etatik 16:00etara izango da horretarako aukera.

Herriko haurrei ere urtero-urtero ematen zaie korri egiteko aukera, eta aurten ere izango dute beraientzako prestaturiko lasterketa. 16:15ean egingo dute.

Lana eskatzen du lasterketa prestatzaiek, eta egunean bertan ere, lagundu nahi duenarentzat lanik ez da faltako.

Pintxoak parte hartzaileentzat Ezaguna den moduan, Ikaztegiako Herrigintza elkarteak, lasterketan parte hartzen duten guztiarentzat pintxoak eta edatekoa prestatzen ditu. Nahiz eta eguna eta ordutegia aldatu, mantendu egingo dute elkarteak kideek ohi-



Iaz, lasterkariak irteeran. E. MAIZ

tura hau. Beraz, korrikalariak, 10 kilometroko lasterka egin ostean, tripa betetzeko aukera ere izango dute.

Lehen hiru sailkatuentzat sariak izango dira, bai emakumeentzat eta gizonentzat. Lehen beterranoek eta herritarrek ere izango dute.

Opari bezala, 200 korrikalariarentzat kamisetak ere izango dira. Era berean, kiroldegian dutzatze-ko aukera izango dute.

Bazkideen afaria

Urteroko bazkariaren ordez, aurten bazkideen afaria izango da elkarteak. Lasterketako antolaketaz kanpo, lanak bukatu eta gero, 20:30ak aldera, mahaiaren bueltan elkartzeko dira afari ederra egiteko.

Odolki eta mondejoak, arrain zopa, legatza saltsan, txuleta eta postrea izango dituzte afaltzeko. Bukatzeko, kaferik eta koparik ere ez da faltako.

Iñigo Jauregi ◉ **Arraunlaria**

Hiru urtez Orion aritu ondoren, aurtengo denboraldia Zierbenan egin du Iñigo Jauregi tolosarrak, eta datorrena bertan jarraitzeko asmoa du.

«Ilusioa dut datorren urtean lehen mailan egoteko»

Imanol Garcia

Iñigo Jauregiarentzat (Tolosa, 1989) bere arraun denboraldi garrantzitsua izan da aurtengoa. Zierbena traineruarekin bigarren egin du KAE 1 ligan, hau da, arraunaren bigarren mailan. Igoerako kanporaketan bigarren egin zuten ere, eta arauak datorren denboraldian lehen mailan egon behar dutela esaten badute ere, Urdaibairen aurka zabalik dagoen auziak egoera deseroso batean utzi ditu. «Ez dakigu datorren urtean lehen mailan edo bigarren mailan izango garen, eta horrek ez digu uzten behar bezala prestatzen», dio Jauregik.

Noiz hasi zinen arraun egiten?

Kuadrilako baten aitak, gaztetan patroï aritu zena, arraun egiten probatu nahi al ginen galdetu zigun, eta guk baietz esan genion. Orduan hamasei urte nituen. Horrelaxe probatzen hasi ginen, gero pixkana ikasten joan nintzen, eta gustatu egin zitzaidan. Tolosaldeko arraun elkarteak galdetu zigun ea Gipuzkoako ligaxkan parte hartu nahi ginen. Eta horrela TAKen hasi ginen, eta jubenilen lehenengo urtean geundela, Oriotik deitu ziguten hango bateletan parte hartzeko.

Eta Orion jarraituzenuen.

Seniorretara pasatu nintzenezan, Anjel Larrañagak galdetu zidan ea arraunean jarraitu nahi nuen. Baietz esan nion eta berak lagundu zidan Oriora joaten. Pixkana nire lekua irabazi nuen eta hiru urte pasatu nituen han. Bukaera aldera nahiko erreta nengoen. Gainera, lanarekin batera ikasten hasi nintzen, eta aldaketa bat behar nuen. Utzi egingo nuela esan nuen. Baina, justu, Orioko lehenengo urtean nire entrenatzailea izan zen Patxi Francesek deitu zidan, eta Zierbenako proiektuaz hitz egin zidan. Nik nire egoera esan nion: entrenatzaera joateko denborarik ez nuela izango. Berak erantzun zidan entrenamenduak pasako zizkidala

eta astean zehar nire kabuz entrenatzeko. Azkenean konbentzitu zidan eta horrela iritsi nintzen Zierbanara.

Beraz, denbora handirik ez arraunerako, eta Zierbenan amaitu zenuen.

Bai, azkenean haraino joan nintzen. Entrenatzaileak jarri zidan aukeretako bat negu guztian ategunetan hemen entrenatzea eta asteburuetan hara joatea izan zen. Horrek bidaietako denbora asko kentzen zidan, joan eta etorri hiru ordu direlako. Ikasten bukatzen nuenean, kiroldegira joaten nintzen eta nire kasara entrenatzen nuen. Horrek gauzak asko errazten zizkidan. Ergometroan, pisuekin eta korrikari aritzen nintzen, batez ere. Eta uretara, asteburuetan ateratzen nintzen. Taldekideak, neguan, astean zehar ere ateratzen ziren uretara.

Eta nola hartzen zuten taldekideek zue handik asteburuetan bakarrik azaltzea?

Egia esan, oso jende jatorrearekin elkartu naiz, nire egoera ulertzen zuten eta erabat lagundu didate.

«Guk bagenekien lan polita egitea genuela; umiltasunarekin gure lanean segi genuen»

«Lehen mailan egongo garen lehenbailehen jakin behar dugu prestaketa egiteko»

«Zierbenan oso ondo hartu naute entrenatzaileak eta zuzendaritzak»

Hori bai, gero asteburuetan joaten nintzenezan, erakutsi behar nuen taldean nire lekua nuela. Entrenatzaileak hasieratik sekulako konfiatza jarri zuen nigan. Traineruko arraunketa berarekin ikasi nuen Orion. Konfiantza horrek asko lagundu dit ni han gustura sentitzeko. Klubeko le-



I. GARCIA

hendakariak eta oso tratu ona eman didate, eta behar izan dudana eskura jarri didate.

Titular moduan arituzara?

Bai, estropada guztietan parte hartu dut, bai bateletan eta baita traineruetan ere. Behintzat, postua irabazi dut.

Nola joan da denboraldia?

Bigarren egin genuen ligan. Hasiaren jaisierak egiten dira, Hondarribikoa, Orikoa... Horietan Santurtzi, Portugalete, Isuntza... oso indartsu aritu ziren. Gu ez ginen desastre aritu, baina ez ginen puntan izan. Portugalete eta Santurtzik sekulako fitxaketak egin zituzten eta mundua jan behar zutela ematen zuten. Inork ez zuen Zierbena kontuan hartzen, baina guk bagenekien lan polita egitea genuela. Isil-isilik, umiltasunarekin, gure lanean jarraitu genuen.

Eta traineruen liga nola hasi zenuen?

Ligako lehen estropadan, Errioxan, bigarren egin genuen, Portugaleteren atzetik. Ibaietako eta ur geldoetako estropadetan gu baino gehiago zen Portugalete, baina itsasokoetan, gehienbat mugitua zegoenez, gu hobeto aritzen ginen beraiek baino. Ez ditugu bandera asko irabazi, Portugalete hor zegoelako, eta Kantauriko arraunlari hobetsuenak fitxatu dituelako. Bandera bakarra irabazi dugu, Plentziakoa, baina oso erregularrak izan gara ligan zehar.

Beraz, oso gustura egin duzuenarekin.

Bai. Bateletan, Bizkaiko Ligan, Kaiku, Urdaibai eta Portugaleterekin lehiari aritu ginen. Hor kon-

fiantza hartu genuen. Gure arazoetako bat hori zen: nola taldean ez genituen izen handiko arraunlaririk, ez genuen behar bezainbeste sinisten guregan. Eta bateletan nola aritu ginen ikusita, traineruan ere ondo aritzeko gai ginela barneratu genuen. Ez genuen klubetik presiorik emaitza jakin bat lortzeko, Portugalete edo Santurtzi bezala, eta azkenean ondo atera zaigu denboraldia.

Denboraldi amaiera, baina, nahastuta geratu da Urdaibairen aferarekin.

Ligan bigarren gelditu ginen eta, beraz, mailaz igotzeko play-offetan sartzeko txartela lortu genuen. Eta kanporaketa horretan bigarren egin genuen, beraz lehen mailako postua lortu genuen. Kontua da Urdaibairen aurka epaitegietan prozesu bat dagoela, dopinaren inguruan. TKE ligak Urdaibairen egoera federazioko epaile bakarraren eskuetan utzi zuten, eta honek epaitegien esku. Epaiaren arabera, ligatik kanporatua gelditu daiteke Urdaibai. Hori gertatu litekeela eta, TKEko klubek erabaki zuten ligako azken sailkatuak, Oriok, play-offetakoekin batera erlojupekoa egitea, badaezpada. Kontua da Oriok guk baino denbora hobea egin zuela. Eta, beraz, Urdaibai kanporatzen badute, Oriok igoko litzateke eta gu bigarren mailara jaitsi.

Eta zer gertatu daiteke epaitegietan?

Ez dakit, baina baliteke Urdaibai-ko lehendakaria edo entrenatzaileak zigortzea, baina kluba ez, arraunlariek ez baitute positiborik eman.

Oraindik maila batean edo bestean**ariko zaretzen ez jakiteak, asko eragingo dizue, ezta?**

Oso egoera deserosoa da. Guk erabakia lehenbailehen jakin behar dugu datorren denboraldia prestatzeko. Berez, erabaki horrek aspaldi hartuta egon behar zuen. Beste taldeak mugitzen ari dira, arraunlariak fitxatzen, babesleak lortzen... Guri egoerak kalte egiten ari zaigu. Berez, play-offen ondoren, mailaz igo ginelako besoak altxatu beharrean, zailantza horrekin geratu gara, zer gertatuko den ez dakigula.

Eta, noski, ilusioa egingo dizue lehen mailan aritzeak.

Bai. Azken finean Zierbenak bere urte onak izan ditu, baina aspaldiki hirugarren mailan zegoen eta hiru urtetan lehen mailara igo gara. Beraz, klubarentzat oso garrantzitsua da.

Zure asmoa Zierbenan jarraitzea da?

Bai. Zierbenan oso ondo hartu naute bai zuzendaritza aldetik baita entrenatzailearen aldetik ere. Oso jende ona topatu dut, dena emateko prest dagoena. Akats bakarra da urrutiegi dagoela. Nire betiko taldea Oriok izan da. Eta baliteke Oriora itzultzeko unea iristea. Baina, egoera jakin baten ondoren, erabaki bat hartu nuen eta Zierbenan nago orain. Nik han, Orion tirako nuen arima berdinarekin tiratzen dut. Ilusioa dut datorren urtean lehenengo mailan egoteko eta hori gozatzeko. Lau urte kostatu zait horra iristea. Ea orain uzten diguten lortu dugunaz gozatzen.

PSE-EEK Voith-Gorostidi proiektua errespetatzen eskatu dio Bilduri

Aurreikusita dauden ezaugarriak ezabatuz etxebizitzaren balioa murriztuko dutela salatzen dute sozialistek

Erredakzioa Tolosa

Tolosako sozialistek aurreko legegandian onartu zen Voith-Gorostidi eremuko etxebizitzaren proiektua errespetatzen eskatu dio Bildu koalizioari. Proiektuak Larremendi kaleko errepidearen zati bat lurperatzea aurreikusten zuten, eta PSE-EEren ustez,

proiektuan onartutako ezaugarriak mantentzen ez badira, «etxebizitzaren salneurria txikiagoa izango litzateke».

Sozialistek azaltzen dutenez, «udalak hainbat ezaugarri kendu nahi ditu, eta beraz, etxebizitzaren balioa murriztuko da, maula egoera bat sortuz».

Bildu gainerako proiektuekin ere honekin bezala ari dela jokatzeko salatzen du, bestalde, PSE-EEK; «kudeaketa eta gaitasun falta nabari da, eta horrek kezkatzen gaitu, proiektuak geldiarazten ari direlako, baina ez dutelako inolako alternatibarik eskaintzen».

Osasun Sailaren Lurralde zuzendariarekin bilduko da gaur eguerdian TOPA

Elkarretaratzerara deitu dute ordu berean, Osasun Saileko Gipuzkoako Lurralde Zuzendaritzaren aurrean

Erredakzioa

TOPA (Tolosaldea Osasun Publikoaren Alde) koordinakundeko ordezkariak Osasun eta Kontsumo Sailaren Gipuzkoako Lurralde zuzendariarekin, Jose Maria Begiristainekin, bilduko dira gaur, 12:00etatik 13:00etara. Ordu horretarako, bilera burutuko den leku berean, hau da, Donostiako Antso Jakitunaren etorbidean dagoen Osasun Sailaren Gipuzkoako Lurralde Zuzendaritzaren

aurrean, elkarretaratzerara deitu du plataformak, «bilera hori babestu asmoz».

Bilera horretan, plataformaren eta herritarren nahien berri emango diotela Osasun eta Kontsumo Sailaren Gipuzkoako Lurralde zuzendariari azaldu dute. Gasteizen duela bi aste egin zuten bezala. Koordinakundeak salatu duenez, Eusko Jaurlaritzako Osasun Saileko sailburuarekin bilera bat egiteko eskatu zuten urte honetako maiatzaren 26an, baina oraindik ez dute erantzunik jaso.

Bilerak eskualdean

Bestalde, Berrobin bilera informatiboa egingo du TOPAk gaur, 19:00etan, udaletxean, eta Berastegin bihar, 21:00etan, aparkalekuz auzpiko lekuean.

→ Laburrak

Azaroan hasiko da Xake ikastaroa Xake elkartearen

IBARRA | Ibarako Xake Elkarteak xake ikastaroa antolatuko du Ibarako eta inguruko herrietako gaztetxoentzat. Ikastaroa azaroan hasiko da eta ekainera arteko iraupena izango du. Eskolak astean behin izango dira eta ordubeteko iraupena izango dute. Interesa dutenek bihar agertu beharko dute, 17:30ean, Ibarako Xake Elkartearen lokalean (Ibarako kultur etxean).

Alegian eta Tolosan, ezker abertzalearen batzarra

POLITIKA | Ezker abertzaleak batzarra deitu ditu gaurko, Alegian eta Tolosan. Egungo egoera politikoaz eta azaroaren 20ko hauteskundeez eztabaiatuko dute. Tolosako batzarri dagokionean, kultur etxean izango da, 20:00etan hasita. Alegiakoa, berriz, 19:00etan hasiko da, eta udaletxean izango da. Ezker abertzaleak herritar guztiak animatzen ditu batzarretan parte hartzea, izan ere, beraiek dioten bezala, «bizi dugun momentu politikoak hala eskatzen du, duen garrantziagatik».



Pasa den ostiralean egin zuten herri batzarra emakumeen kontratazioen inguruan hitz egiteko. HITZA

LAB eta Bilgune Feminista «gustura» curriculum bilketak utzitako emaitzekin

Udan 20 kontratazio egin zituzten Sarriopapelen, eta horietatik 7 izan dira emakumezkoenak

Irñigo Terradillos Leiza

Leitzaldeko Bilgune Feministak eta LAB sindikatuak elkarlanean maiatzaren jarri zuten martxan curriculum bilketa. Bada, hilabete hauetan egindako lanaren ondorioz, «argi» ikusi dute «Leitzako emakumeek herrian bertan egin nahi dutela lan».

Curriculum bilketa honetan, 50 curriculum inguru jaso dituzte, eta horiek Leitzako Sarriopapel SA lantegiko zuzendaritzari entregatu dizkiete. «Urtetako aldarrikapen eta lanak izan du emaitzarik. Eta bidean ekimen ugari, lana eta esfortzua daude: artean, eskubideen inguruko emakume batzarra, propaganda eta ideologizazio lana, herri eragileen, sindikatuaren eta herritarren arteko lankidetzak, eta baita, sindikatuaren aldetik Sarriopapeleko zuzendaritzarekin negoziazio esfortzua, borondate politikoa eta denbora», adierazi dute. Euren arabera, «leitzarren arteko elkar-tasunak, antolakuntzak eta borrorak» eraman dituzte lorpen horietara.

Hala, Leitzaldeko Bilgune Feministak eta LAB sindikatuak eskerrak eman nahi dizkiete eskualeko emakumei, «beharrizan eta injustiziari aurre egiteko elkarlanerako erakutsitako gogoagatik eta antolatuko ditugun ekimenetan parte hartzeagatik».

Udako kontratazioak

Bestalde, azaldu dutenez, udan 20 izan dira egindako kontratuak eta horietatik, 7 emakumezkoekin izan dira. «Beraz, oso balantze baikorra eginen dugu, herrian urtetan emakumeak diskriminatu gaituen lantegian emakumeak kontratatu dituztelako». Baina, argi adierazi nahi dute, «hutsuneak daudela, kontratu erreleboetan, hain zuzen ere».

250 langiletik gora ditu Sarriopapelek, eta Berdintasun Plana jartzea eskatu dute

tu errelebo egin dira eta horietatik bi baino ez dira izan emakumeenak; «espero dugu urtea amaitezako emakume gehiagori egiteko kontratu erreleboa».


Berdintasun Plana

Bilgune Feministak eta LABek lanean jarraituko dutela diote, «enpleguari dagokionean, leitzar guztiak eskubide eta aukera ber-

dinak lortu arte, kalean zein lantegian». Bide honetatik, langile batzordeak eskaera bat egin berri dio lantegiko zuzendaritzari: 250 langiletatik gorako enpresetarako zehaztuta dagoen bezala, Berdintasun Plana bat egin eta honen jarraipenerako berdintasun batzorde bat sortzeko baliabideak jartzea. Batzorde hau langileen ordezkariak eta zuzendaritzako langileek osatuko lukete.

Bada, Sarriopapel lantegiko zuzendaritzari eginen dizkioten eskaerak ondorengoak dira: Berdintasun Plana martxan jartzeko bitartekoak sortzea; prozesu honetan langileen ordezkariak egotea; Berdintasun Planaren inguruko aplikazioak zuzenean negoziatzen ari den Lan Hitzarremenean txertatzea; eta kontratazioetarako irizpide moduan Europako Batasunean zehaztuta dagoen berdintasun portzentajea erabiltzea.

Bai plataformak bai eta sindikatuak ere, parekidetasunaren alde lanean jarraituko dutela diote, «beti ere, elkartasuna eta lankidetzak oinarri izanda».



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

KULTURA SAILAK DIRUZ LAGUNDUTAKO HEDABIDEA



≈ 22°
≈ 17°

GOIZA	EURIA
ARRATSALDEA	LAINTUTA
BEROENA	21°
HOTZENA	15°

Argitaratzailea: Tolosa Herria Hedabideak S.M.
Lege Gordailua: SS-0398-03
Zuzendaria: Rebeka Calvo
Egoitza nagusia: Araba Etorbidea 5, atzea, Tolosa.
Telefonoa: 943 65 56 95. **Faxa:** 943 65 00 18
Leitza: Herriko plaza, 1. 687 410 118
E-posta: tolosaldean@hitza.info
Webgunea: tolosaldea.hitza.info

Zuzendariordea: Imanol Garcia. **Kudeatzailea:** Jon Mujika.
Publizitate: 661 678 818 tolosa@bidera.eu.
Tolosa: 687 410 082-687 410 032. tolosa@hitza.info.
Villabona: 687 410 022. villabona-aiztondo@hitza.info.
Anoeta: 687 410 022. anoeta@hitza.info.
Ibarraldea: 687 410 118. ibarraldea@hitza.info.
Alegialdea: 687 410 034. alegialdea@hitza.info.
Leitzaldea: 687 410 118. leitzaldea@hitza.info.

**Tolosa Herria Hedabideak
S.M.ko kideak:**



eta Tolosaldeko
eta Leitzaldeko
beste 77 eragile

**Hitza-k
Bai
Euskarari**



'Hitza' diruz laguntzen duten erakundeak. Udalak:

Aduna, Albiztur, Alegia, Altzo, Armezketza, Anoeta, Areso, Baliarrain,
Belauntza, Berastegi, Berrobi, Elduain, Hernialde, Irura, Leitza, Tolosa, Villabona eta Zizurkil

Gipuzkoako
Foru
Aldundia

Hitza-ko bezeroen arreta zerbitzua (zalantzak argitzeko, harpidedun egiteko): **902 82 02 01**

Farmaziak

GAUR

- **Tolosa.** Bronte, C.I.
Korreo kalea, 20.
Telefonoa: 943 60 13.
- **Leitza.** Plaza, M.T.
Elbarren, 36.
Telefonoa: 112.

HITZAK ez du bere gain hartzen egunkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzukizunik.

Agurrak

AGURRAK
943-65 56 95
tolosaldean@hitza.info

urtebetetzeak
urrezko ezteiak
ezkontzak
jaioberriak
jaunartzeak...

agurrak

Irudia Tolosa



LORE DENDEN GOZAMENERAKO

Domu Santu eguna izan zen atzo. Mundu guztian ospatzen da, eta bakoitzak bere ohitura eta erri-tualak ditu. Gurean kanposantura lore sorta ederra ematea da ohiturarik zabalduena, eta atzoko-aren ere inoiz baino dotoreago egon ziren Tolosal-

deko eta Leitzaldeko hilerriak. Lore dendetan lan asko izan dute azken bi asteetan, izan ere jendea batez ere, azken asteetan jotzen du dendetara lo-reak erostera. Eguraldia lagun jende asko izan zen Tolosako kanposantuan. I. TERRADILLOS

Agenda

DEIALDIAK

- **Tolosaldea.** TOPA platafor-mak elkarretaratzea egingo gaur Donostian, 12:00etatik 13:00etara. Osasun Sailaren Gi-puzkoako Lurralde Zuzendari-tzaren aurrean bilduko dira, pla-taformako kide batzuk saileko zuzendariarekin biltzen diren bi-tartean. Era berean, Berrobin hi-tzaldia eskainiko dute gaur, 19:30ean.
- **Tolosa.** Tolosako ezker aber-tzaleak batzarra egingo du gaur, 20:00etan kultur etxeko areto nagusian. Bertan, egoera politi-koaz eta azaroak 20ko hautes-kundeez hitz egingo dute. «Bizi dugun momentu politikoak es-katzen duen neurrian», herrita-rrei parte hartzeko deia luzatu die ezker abertzaleak.
- **Alegia.** Gaur 19:00etan ezker abertzaleak batzarra egingo du udaletxean. Bertan, azken aste-etako berriak eta Amaiur koali-zioa izango dituzte hizpide.
- **Orexa.** Kultur hamabostaldia-ren barruan gaur, 19:30ean hi-tzaldi didaktikoa eskainiko du Gillermo Castañosek sagardo-gintzari buruz.
- **Alegia.** Udazkenean Kultura programaren barruan gaur, ma-krobiotika ikastaroa egingo dute 19:00etatik 22:00etara Txintzarri elkartearen.
- **Villabona.** Gaur hasiko dira Mintzolak antolatutako *Ahoa bete hots* jardunaldiak. Gaurko egitaraua: 09:15etik 10:15era Luis Mari Larringan eta Arantza Ozaetaren eskutik *Ahozkoa eta idatzia, bi kultura*. Zertan elkar-rren oztupo, zertan elkarren *aberasbide*; 10:20ean Julia Ma-rinen *Esatearen ederra*; 11:25ean Asier Larrinagaren *Pantaila euskarazko hitzez mintza*; 12:45ean *Arra Arraroa*; eta 13:10ean mahai ingurua.

PLAN PREVER PEUGEOT 2.600€ ZURE KOTXE ZAHARRARENGATIK

P-5008



TOLOSA MOTOR, S.A. PEUGEOT KONTZESIONARIOA

San Esteban auzoa, 14-A • 20400 TOLOSA • Tel.: 943 650 337 / Faxa: 943 652 938 • tolosa@tolosa.redpeugeot.com

